# I DIPUTACION FORAL DE ALAVA ARABAKO FORU ALDUNDIA I

## DISPOSICIONES Y RESOLUCIONES ADMINISTRATIVAS

*- Decretos Forales del Consejo de Diputados*

53

**DECRETO FORAL 123/1997, del Consejo de Diputados de 31 de diciembre, que incorpora a la normativa foral alavesa las modificaciones introducidas por el Real Decreto 1.909/1997, de 19 de diciembre, en los Reglamentos del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas y del Impuesto sobre Sociedades, relacionadas con las retribuciones en especie en materia de comedores de empresa, derechos de imagen y devoluciones mediante cheque.**

Por Real Decreto 1.909/1997, de 19 de diciembre, se ha procedido a modificar determinados artículos de los Reglamentos del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas y del Impuesto sobre Sociedades, así como del Real Decreto sobre devolución de ingresos indebidos.

Estas modificaciones afectan a las reglas especiales establecidas sobre retribuciones en especie en materia de comedores de empresa; derechos de imagen y devoluciones mediante cheque.

A la vista de este Real Decreto se estima procedente modificar la regulación reglamentaria del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas y del Impuesto sobre Sociedades de este Territorio Histórico, incorporando las alteraciones normativas contenidas en dicho Real Decreto, en las materias referidas a comedores de empresa y derechos de imagen.

Considerando lo dispuesto en el Concierto Económico especialmente lo establecido en sus artículos 2 y 11.

Visto el informe emitido al respecto por el Servicio de Normativa Tributaria con fecha 24 de diciembre de 1997.

A propuesta del Diputado titular del Departamento de Hacienda, Finanzas y Presupuestos, previa deliberación del Consejo de Diputados en sesión celebrada el día de hoy,

DISPONGO:

Artículo 1.- Modificación del Reglamento del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas en materia de fórmulas directas e indirectas de prestación del servicio de comedor de empresa.

El artículo 5 del Reglamento del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas, aprobado por el artículo 1 del Decreto Foral 154/1992, de 10 de marzo, queda redactado como sigue:

"Artículo 5.- Reglas especiales sobre retribuciones en especie.

Uno. No tendrán la consideración de retribuciones en especie, a efectos de lo previsto en el párrafo segundo de la letra g) del artículo 26 de la Norma Foral del Impuesto, los estudios dispuestos por instituciones, empresas o empleadores y financiados directamente por ellos para la actualización, capacitación o reciclaje de su personal, cuando vengan exigidos por el desarrollo de sus actividades o las características de los puestos de trabajo, incluso cuando su prestación efectiva se efectúe por otras personas o entidades especializadas. En estos casos, los gastos de estancia y manutención se regirán por lo previsto en el artículo 4 de este Reglamento.

Dos. Los derechos especiales de contenido económico que se reserven los fundadores o promotores de una sociedad como remuneración de servicios personales, cuando consistan en un porcentaje sobre los beneficios de la entidad, se valorarán, como mínimo, en el 35% del valor equivalente de capital social que permita la misma participación en los beneficios que la reconocida a los citados derechos.

Tres. 1. A efectos de lo previsto en la letra a) del último párrafo del artículo 26 de la Norma Foral del Impuesto, tendrán

## XEDAPENAK ETA ADMINISTRAZIO EBAZPENAK

*- Diputatuen Kontseiluaren Foru Dekretuak*

53

**123/1997 FORU DEKRETUA, abenduaren 31ko Diputatuen Kontseiluarena, abenduaren 19ko 1.909 /1997 Errege Dekretuak, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari eta Sozietateen gaineko Zergari buruzko Araudietan sartu zituen aldaketa berberak Arabako foru arautegian sartzen dituena. Aldaketa horiek enpresetako jantokiak, irudi-eskubideak eta txeke bidezko itzultzeak direla-eta jenerotan egindako ordainketekin dute zerikusia.**

Abenduaren 19ko 1.909/1997 Errege Dekretuaren bitartez, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari eta Sozietateen gaineko Zergari buruzko Araudien atal jakin batzuk eta okerreko diru sarrerak itzultzeari buruzko Errege Dekretua aldatu dira.

Enpresetako jangelak, irudi-eskubideak eta txeke bidezko itzulketak direla-eta jenerotan egindako ordainketei buruzko arau bereziei eragingo diete aldaketa horiek.

Errege Dekretu hori ikusita, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari eta Sozietateen gaineko Zergari buruzko erregelamenduzko arautzea aldatzea komenigarria jotzen da, horretarako, enpresetako jantokiei eta irudi-eskubideei buruz Errege Dekretu horretako arauetan egon diren aldaketak sartuko dira.

Kontzertu Ekonomikoan xedatutakoa kontutan izanik, batik bat 2. eta 11. ataletan dioena.

Esandakoari buruz, 1997ko abenduaren 24ean Zergen Arautegirako Zerbitzuak egin zuen txostena ikusita.

Gaur bertan egindako bilkuran Diputatuen Kontseiluak hausnartu ondoren, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailaren buru den diputatuaren proposamenari jarraituz,

XEDATU DUT:

1. atala.- Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Araudian, enpresako jantokietako zerbitzua emateko zuzeneko eta zeharkako formulei buruzko aldaketak egitea.

Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Araudiaren 5. atala, martxoaren 10eko 154/1992 Foru Dekretuaren 1. atalak onartu zuena, ondoren adierazten den bezala jasota geratu da:

"5. atala.- Jenerotan egindako itzulketei buruzko arau bereziak.

Bat. Zergari buruzko Foru Arauaren 265. ataleko g) hizkiaren bigarren lerroaldian aurreikusitakoaren ondorioetarako, jenerotan egindako itzulketatzat ez dira hartuko honako hauek: lanak berak edo lanpostuaren ezaugarriek hala exijitzen dutelako, pertsonala eguneratzeko, gaitzeko edo birziklatzeko erakundeek, enpresek edo enplegatzaileek antolatutako eta zuzenean ordaindutako ikasketak, ezta lanpostu hori beste pertsona edo erakunde espezialdu batzuek betetzen badute ere.

Bi. Elkarte baten fundatzaileek edo sustatzaileek, zerbitzu pertsonaleko ordainsari modura, eurentzat gordetzen dituzten izaera ekonomikoko eskubide bereziak, erakundearen etekinen hainbesteko portzentaia direnean, baloratu gutxienez, kapital sozialaren balore baliokidearen %35ean baloratuko dira, horrela etekinetan aipatutako eskubideei aitortu zaien parte hartze berbera eduki ahal izango da.

Hiru. 1. Zergaren Foru Arauaren 26 ataleko azken lerroaldiaren a) hizkian aurreikusitakoaren ondorioetarako, enpresako

la consideración de entrega de productos a precios rebajados que se realicen en comedores de empresas las fórmulas directas e indirectas de prestación del servicio, admitidas por la legislación laboral, en las que concurran los siguientes requisitos:

1º. Que la prestación del servicio tenga lugar durante días hábiles para el empleado o trabajador.

2º. Que la prestación del servicio no tenga lugar durante los días que el empleado o trabajador devengue dietas por manutención exceptuadas de gravamen de acuerdo al artículo 4 de este Reglamento.

2. La cuantía de las fórmulas indirectas no podrán superar 1.100 pesetas diarias. Si la cuantía diaria fuese superior, existirá retribución en especie por el exceso. Esta cuantía podrá modificarse por la Diputación Foral de Alava atendiendo a la evolución económica y al contenido social de estas fórmulas.

3. Si para la prestación del servicio se entregasen al empleado o trabajador vales-comida o documentos similares, además de los requisitos exigidos en los números anteriores y cualquiera que fuera su emisor se observará lo siguiente:

- Deberán estar numerados, expedidos de forma nominativa y en ellos deberá figurar su importe nominal y la empresa emisora.

- Serán intransmisibles.

- No podrá obtenerse, ni de la empresa ni de tercero, el reembolso de su importe.

- Sólo podrán utilizarse en establecimientos de hostelería.

- La empresa que los entregue deberá llevar y conservar relación de los entregados a cada uno de sus empleados o trabajadores, con expresión del número de documento y día de entrega.

Cuatro. En el exclusivo supuesto de utilización de vehículos automóviles, a que se refiere el artículo 26. b) de la Norma Foral del Impuesto, que se destinen para fines particulares y laborales, la valoración de la retribución en especie se estimará en un 50% del resultado de aplicar la regla correspondiente contenida en el artículo 27.Uno.b) de la Norma Foral del Impuesto".

Artículo 2.- Porcentaje para calcular el ingreso a cuenta que debe practicarse en el supuesto contemplado en el número 9 del apartado Tres del artículo 2 del Decreto Normativo de Urgencia Fiscal 4/1997, de 8 de abril (que incorpora al ordenamiento del Territorio Histórico las modificaciones tributarias contenidas en la Ley 13/1996 de 30 de diciembre -de Medidas Fiscales, Administrativas y de Orden Social-).

El porcentaje para calcular el ingreso a cuenta del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas que debe practicarse en el supuesto contemplado en el número 9 del apartado Tres del artículo 2 del Decreto Normativo de Urgencia Fiscal 4/1997, de 8 de abril, será del 15%.

Artículo 3.- Obligación de retener y de ingresar a cuenta sobre las rentas procedentes de la explotación de los derechos de imagen percibidos por entidades sujetas al Impuesto sobre Sociedades.

El artículo 50 del Reglamento del Impuesto sobre Sociedades, aprobado por el Decreto Foral 51/1997, de 20 de mayo, queda redactado de la siguiente forma:

"Artículo 50.- Rentas sujetas a retención o ingreso a cuenta

1. Deberá practicarse retención, en concepto de pago a cuenta del Impuesto sobre Sociedades correspondiente al perceptor, respecto de:

a) Las rentas derivadas de la participación en fondos propios de cualquier tipo de entidad, de la cesión a terceros de capitales propios y las restantes rentas comprendidas en el artículo 37 de la Norma Foral 24/1991, de 11 de diciembre, del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas.

jantokietan beheratutako prezioan emandako produktotzat hartuko dira, zerbitzua emateko zuzeneko eta zeharkako formulak, laneko legediak onartuak dituenak, baldin eta honako baldintza hauek betetzen badira:

1. Langileak astegunetan ematea bere zerbitzua.

2. Mantenuagatik enplegatuak edo langileak dietak sortzen dituen egun berean ez ematea bere zerbitzua, izan ere, Araudi honetako 4. atalaren arabera, zerga ezartzetik salbuetsita daude dietok.

2. Zeharkako formulen zenbatekoa ezin izango da eguneko 1.100 pezetatik gorakoa izan. Eguneroko zenbatekoa handiagoa izango balitz, gehiegizko zenbatekoa jenerotan ordainduko da. Arabako Foru Aldundiak kantitate hori aldatu ahal izango du, ekonomiak izaten duen bilakaera eta formula horien edukin soziala kontutan hartuz.

3. Enplegatu edo langileari zerbitzua emateko jan-txartelak edo antzerako agiriak emango balitzaizkio, aurreko zenbakietan aipatutako baldintzez gain, eta igorlea dena delakoa izanik ere, honako hau ere bete beharko da:

- Zenbakia ipinita eduki beharko dute, izendunak izan beharko dira eta bertan zenbateko izenduna eta enpresa igorlea agertu beharko dira.

- Transmititu ezinak izango dira.

- Bere zenbatekoa ezin izango du ordaindu ez enpresak ez hirugarrenak.

- Ostalaritzako establezimenduetan baino ezin izango dira erabili.

- Ematen dituen enpresak, enplegatu edo langile bakoitzari eman zaizkion guztien zerrenda eduki beharko du, agiriaren zenbakia eta zein egunetan eman ziren adieraziz.

Laugarrena. Zergaren Foru Arauaren 26.b) atalak aipatzen duen bezala, erabilera partikularrerako eta lanerako diren autoak erabili egiten badira, jenerotan egindako ordainketaren balorazioa, Zergaren Foru Arauaren 27. ataleko bat b) arauean jasota dagoen erregela aplikatzetik sortutako emaitzaren % 50rrean joko da".

2. atala.- Apirilaren 8ko Zerga Premiatasuneko 4/1997 Araugintza Dekretuaren 2. ataleko hirugarren. azpiataleko 9. zenbakian agertzen den kasuan, kontura zein dirusarrera egin behar den kalkulatzeko portzentaia. Neurri Fiskalei, Administratiboei eta Sozial Mailakoei buruzko abenduaren 30eko 13/1996 Legean jasota zeuden zergen alorreko aldaketak, Lurralde Historikoko ondenamenduan sartu zituen 4/1997 Dekretu horrek.

Apirilaren 8ko Zerga Premiatasuneko 4/1997 Araugintza Dekretuaren 2. ataleko hirugarren. azpiataleko 9. zenbakian agertzen den kasuan, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga kontura sartzeko kalkulua egiteko portzentaia %15ekoa izango da.

3. atala.- Sozietateen gaineko Zergari lotuta dauden erakundeek irudi-eskubideen ustiaketetatik jasotako errenten gainean, atxikitzeko eta kontura sartzeko derrigortasuna.

Sozietateen gaineko Zergaren Araudiaren 50. atala, maiatzaren 20ko 51/1997 Foru Dekretu bidez onartua izan dena, ondoren adierazten den moduan geratzen da jasota:

"50. atala.- Atxikipena edo kontura sartu beharra izango duten errentak:

1. Sozietateen gaineko Zerga kontura ordaintzea dela-eta, hartzaileari dagokionez, atxikipenak ondoren aipatutako kasuetan egin beharko dira:

a) Edozein motatako erakundetako fondo propioetan parte hartzetik sortzen diren errentak; norbere kapitala hirugarrenei lagatzetik sortutako errentak; abenduaren 11ko Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren 24/1991 Foru Arauaren 37. atalean jasota dauden gainerako errenta guztiak.

b) Las rentas satisfechas por una entidad financiera a un tercero, como consecuencia de la transmisión, cesión o transferencia, total o parcial, de un crédito titularidad de aquélla.

c) La parte del precio que equivalga al cupón corrido en las operaciones sobre valores de la Deuda Pública a las que se refiere la Disposición Adicional Décima de la Norma Foral 24/1991, de 11 de diciembre, del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas.

d) La parte del precio que equivalga al cupón corrido en las operaciones sobre valores a las que se refiere la Disposición Adicional Primera del Decreto Normativo de Urgencia Fiscal 1/1994, de 8 de febrero, por el que se introducen en el sistema tributario foral ciertas medidas reguladas por la Ley 22/1993, de 29 de diciembre, de Medidas Fiscales, de Reforma del Régimen Jurídico de la Función Pública y de la Protección por Desempleo.

e) La parte del precio que equivalga al cupón corrido en las transmisiones de valores de la Deuda Pública con rendimiento explícito efectuadas dentro de los 30 días inmediatamente anteriores al vencimiento del cupón por entidades residentes en territorio español a las entidades a que se refiere el artículo 9 de la Norma Foral del Impuesto y de la Ley 43/1995, de 27 de diciembre.

f) Los premios derivados de la participación en juegos, concursos, rifas o combinaciones aleatorias, estén o no vinculados a la oferta, promoción o venta de determinados bienes, productos o servicios.

g) Las contraprestaciones obtenidas como consecuencia de la atribución de cargos de administrador o consejero en otras sociedades.

h) Los rendimientos procedentes de la cesión del derecho a la explotación de la imagen o del consentimiento o autorización para su utilización, aun cuando constituyan ingresos derivados de explotaciones económicas.

2. Cuando un mismo contrato comprenda prestaciones de servicios o la cesión de bienes inmuebles, conjuntamente con la cesión de bienes y derechos de los incluidos en las letras a), b), c) y d) del apartado 3 del artículo 37 de la Norma Foral 24/1991, de 11 de diciembre, del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas, deberá practicarse la retención sobre el importe total.

Cuando un mismo contrato comprenda el arriendo, subarriendo o cesión de fincas rústicas o urbanas, conjuntamente con otros bienes muebles, no se practicará la retención salvo que se trate del arrendamiento o cesión de negocios o de minas.

3. Deberá practicarse un ingreso a cuenta del Impuesto sobre Sociedades correspondiente al perceptor respecto de:

a) Las rentas de los apartados anteriores, cuando sean satisfechas o abonadas en especie.

b) Los intereses, cuando la frecuencia de la liquidación de los mismos sea superior a doce meses”.

Disposición Final Unica

El presente Decreto Foral entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el BOLETIN OFICIAL del Territorio Histórico de Alava y empezará a surtir efectos el 22 de diciembre de 1997.

Vitoria-Gasteiz, a 31 de diciembre de 1997.— El Diputado General, FELIX ORMAZABAL ASCASIBAR.— El Diputado Foral titular del Departamento de Hacienda, Finanzas y Presupuestos, JUAN CARLOS PERAL SANTOS.

35

**DECRETO FORAL número 125/1997, del Consejo de Diputados de 31 de diciembre, que aprueba la convocatoria y sus bases para el otorgamiento de subvenciones, dirigidas a la financiación de los honorarios de redacción de los instrumentos de planeamiento y ejecución urbanísticos de los municipios alaveses en el año 1998.**

b) Entitate finantzario batek hirugarren bati ordaindutako errentak, bere titulartasuneko kreditu baten erabatekoa edo zati bateko transmisio, lagapena edo transferentzia egin izanaren ondorioz.

c) Zor Publikoko baloreen gainean egindako operazioetan, hau da, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 11ko 24/1991 Foru Arauaren hamargarren xedapen gehigarriak aipatzen dituen horiexetan, kupoi korrituari dagokion prezioaren zatia.

d) Baloreen gaineko operazioetan, hau da, otsailaren 8ko 1/1994 Zerga Premiatasuneko Araugintza Dekretuaren lehen xedapen gehigarriak aipatzen dituenetan, kupoi korrituari dagokion prezioaren zatia. Abenduaren 29ko Neurri Fiskalei eta Funtzio Publikoaren eta Langabeziko Babesaren Erregimen Juridikoaren Erreformari buruzko 22/1993 Legeak arautzen dituen neurri jakin batzuk, foruko zerga-sisteman sartu zituen 1/1994 Dekretu horrek.

e) Etekin esplizitudun Zor Publikoko baloreen transmisioetan, transmisio horiek kupoiaren mugaeguna baino 30 egun lehenago, espainian dauden entitateek Zergaren Foru Arauaren eta abenduaren 27ko 43/1995 Legearen 9. atalean azaltzen diren entitateei egiten dizkietenak dira- kupoi korrituari dagokion prezioaren zatia.

f) Jokoetan, lehiaketetan, zozketetan edo zorizko konbinazioetan parte hartzetik eratorritako sariak, eskaintzari lotuta egon ez egon; zenbait ondasunen, produkturen edo zerbitzuren sustapena edo salmenta.

g) Beste elkarte batzuetan administratzaile edo kontseilari karguak esleitzetik jasotako ordainak.

h) Irudia ustiatzeko eskubidea lagatzetik, edo erabiltzeko baimena ematetik sortzen diren etekinak, nahiz eta ustiapen ekonomikoetatik eratorritako diru sarrerak izan.

2. Atxikipena zenbateko osoari egin beharko zaio, kontratu berean batera gertatzen bada, alde batetik, zerbitzuak ematea edo ondasun higiezinak lagatzea eta beste alde batetik, honako hauetan agertzen diren ondasun eta eskubideak lagatzea: abenduaren 11ko 24/1991 Foru Arauaren 37. ataleko 3. azpiatalaren a), b), c) eta d) hizkietan agertzen direnak.

Kontratu berean batera agertzen badira alde batetik, landaedo hiri-finken alokairua, berrakura edo lagapena, eta beste alde batetik, ondasun higigarriena, ez da atxikipenik egingo, negozioen edo meategien alokairua edo lagapena ez bada, behintzat.

3. Hartzaileari dagokionez, Sozietateen gaineko Zerga kontura sartu beharko da honakoetan:

a) Aurreko ataletan aipatu ditugun errentak jenerotan ordaintzen direnean.

b) Interesetan, interesok likidatzeko frekuentzia hamabi hilabetetik gorakoa denean”.

Azken xedapen bakarra.

Honako Foru Dekretu hau indarrean jarriko da Arabako Lurralde Historikoaren ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzen den hurrengo egunetik aurrera, eta ondorioak izango ditu, berriz, 1997ko abenduaren 22tik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 1997ko abenduaren 31n.— Diputatu Nagusia, FELIX ORMAZABAL ASCASIBAR.— Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailaren buru den Foru Diputatua, JUAN CARLOS PERAL SANTOS.

35

**125/1997 FORU DEKRETUA, abenduaren 31ko Diputatuen Kontseiluarena, 1998. urtean, Arabako udalerrien hirigintzaren planeamendurako eta burutzapenerako bitartekoak idazteagatik emango diren ordainsariak diruz laguntzeko deialdia eta deialdi horren oinarriak onartzen dituena.**